# “Mundua” bitarteko: Zein digitalizazio prozesu nahi dugu hezkuntzan?

Diana Franco Eguren

Euskara Bildua 2020

Teknologia burujabetza hezkuntzan: Gaur egungo panorama, alternatibak eta aurrera begirako erronkak (mahai-ingurua)

# Hezkuntza eta errealitatea



Paulo Freire pedagogo brasildarraren hitzetan hezkuntzaren helburu nagusia gizakien gaitasunak eta potentzialak garatzea da, bizitzan izan behar duen rolaren kontzientzia izan dezan, eta behar izatekotan, bere ingurua zelan bihurtu jakin dezan.

Horretarako beharrezkoa du kontzientzia kritikoa eta **bizi dugun munduaren errealitatearen analisia egiteko gaitasuna izatea.**

# Nondik gatoz?

Gizakiok munduaren errealitatea lantzeko eta partekatzeko teknologia ezberdinak garatu izan ditugu geure izatearen historian zehar:




*Irudia 1: Teknologia belaunalditan // Standford Unibertsitatea*

Gizakion munduan, gizartean, digitalizazio prozesuaren eragin handiena azken hamarkadan bizi izan dugu

***Hodeian konputazioa eta Adimen Artifiziala 14 urte***




**40 urte**

# Non gaude? askok hodeian gaude


*Irudia 2: kableak googleen data zentruetan // iturria Google*


*Irudia 3: Googlen data center // Iturria Google*

# Non gaude? Askok hodeian gaude




*Irudia 4: 2019 telegeography submarine cable map // Iturria Telegeography.com*

# Non dago hezkuntza komunitata (Irakasleak, familiak, ikasleak) Hodeian dagoenean ?



# Gero eta estuago...



*Irudia 5: Grace Hopper Kablea // Iturria Google Cloud*

Datuen %98a itsas azpiko kableen bidez bideratzen da.

Interneten erabiltzen ditugun zerbitzuak ez daude gure ondoan, gehienak Estatu Batuetan daude

2020 an Grace Hopper Google-en itsas azpiko kablea zuzenean konektatu du Bilbo Googlen NewYork-eko Infraestrukturekin.

Gaur egun hodeia bezala (orokorrean) ezagutzen duguna, eta gehienok erabiltzen duguna, mundu digitalean negozio eredu ezberdinak egitea sustatzen dituzten infraestruktura multzoa da.

# Zergatik nahi dituzte GAFAM enpresek datu agregatuak?

Azken 10 urteetan etekin handiak ematen dituzten datuetan sustaturiko negozio ereduak garatu dituztelako. Eta ideia asko dituzte eredu horiek eremu ezberdinetara zabaltzeko, eta etekin gehiago lortzeko: Hezkuntza, Osasuna, Frabrikazioa,...

GAFAM enpresek interakzioak suertatzen diren eremuengatik lehiatzen dira, bakoitzak digitalizazio eredu ezberdinak sustatuz euren hodeietan (euren infraestrukturetan)

# Nola eragiten digute euren negozio ereduak?

Gure mundua ulertzeko moduari forma emoten.

Gainera COVID19a ez du laguntzen, eta mehatxu fisikoak bultzatzen gaitu gure interakzio asko mundu digitalean egiten. Non, alfonbra gorriarekin itxaroten gaituzten.

# Nahiz eta hori ulertu, zergatik erabiltzen ditugu GAFAM enpresen zerbitzuak hezkuntzan?

- Hezkuntza gizartearen parte da eta honekin batera egiteko moduak eraldatzen ditu. IkTak erabiltzea oso naturala izan da beraz.
- Behar bada ez gara gai izan ondo ulertzeko atzetik zegoena.
- Behar bada ez dugu alternatibarik ezagutu, edota ez gara alternatiba bat aurrera eroateko gai sentitu.
- Gainera oso erraz eta eroso jarri digute enpresa hauek, batez ere Google-ek

# Zer egin dezakegu: Lan egiteko sistemaren aldetik

Badirudi **Lanbide Heziketaren** munduan jakituria asko dagoela. Eta alternatibak eraikitzeko askatasuna. Zenbait zentruk sare federatuak eraikitzen ari direlarik.

Nik uste dut hezkuntza instituzioak Lanbide Heziketan egiten ari direna aztertzen hasi beharko luketela, eta LH eta DBHko eragileekin digitalizazioaren inguruan hausnarketa etengabe bat egin. Hau aldatzen dioan kontua baita.

# Zer egin dezakegu: Ikasleei urbiltzen diegun ezagutzaren aldetik

Nire pertzepzioa da GAFAM eta beste enpresa askok errealitate paraleloak eraikitzen ari direla. **Medioa kontrolatzen dute, eta hor arrakasta izateko moduak baita.**

Nik uste dut horri buelta bat emateko aukera dagoela, digitalizazioari loturiko hezkuntza mundu analogikoetatik (fisikoatik) digitalizazioaren infraestrukturak ulertzea delarik lehenengo pausua. Behar bada Eusko Jaurlaritzatik sutatzen duen **STEAM metodologia aukera** bat izan daiteke.

# “Mundua Bitarteko”: Zein digitalizazio prozesu nahi dugu hezkuntzan?

Pertsonak geure arteko harremanetatik ikasten dugu mundua bitarteko. Gizakiontzat ezagutzaren zentzua gure komunitatean duen eraginarekin erabat lotua dago. Gauza da **“mundu” horri forma ematea noraino dagoen gure esku gaur egun edo noraino Google bezalako enpresen esku.**

## Hezkuntzan Librezale

Gai hauetaz ardura dugun pertsona talde bat gara, 320 gutxi gora behera,  momentuz gure ardura  hauek partekatzea eta kontrastatzea delarik gure jarduera nagusia, gizartean eragiteko eta instituzioetatik hausnarketa egitera animatzeko.

Hezkuntzan Librezale web orrian informazio gehiago: https://hezkuntza.librezale.eus